



61. EUSKAL SOZIOMETROA: EUSKAL GIZARTEA ETORKIZUNAREN AURREAN (2016ko uztaila) Prensa oharra

SARRERA

61. Euskal Soziometro honen gai nagusiak izan dira etorkizunarekiko euskal herritarren jarrerak; Euskadiren etorkizuneko irudia eta erronkak. Landa-lana 2016ko maiatzaren 23tik ekainaren 2ra bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Egoera ekonomikoaren pertzepzioa hobetu da, nahiz eta krisi aurreko mailara ez den iristen

Egoera ekonomikoaren pertzepzio positiboak 2013tik datorren goranzko joerari eusten dio, nahiz eta oraindik krisi aurreko balioetara, 2008aren aurrekoetara, itzultzetik urrun egon. 2013an egoera ekonomikoaren pertzepzio positiboa %20koa zen eta gaur egun %42ra igo da.

Euskal herritarrek EAEko ekonomiari buruz duten iritzia (%42ko balorazio positiboa), Europar Batasuneko herritarrek beren herrialdeko ekonomiari buruz duten batez bestekoaren antzekoa da (%40koa) eta Espainiako herritarrek euren egoerarekiko dutena (%9) baino askoz hobea.

Euskadin Espainiako egoera ekonomikoari buruzko iritzia askoz okerragoa da. Balorazio positiboa berriro jaitsi da pixka bat, 2013tik zetorren goranzko joera arina hautsiz. EAEko herritarren %7k bakarrik uste dute Espainiako ekonomiaren egoera ona edo oso ona dela; 2013an %3koa zen portzentaje hori.

Egoera politikoaren pertzepzioari dagokionez, EAEko herritarren artean zatiketa handia dago: %47k uste dute txarra edo oso txarra dela, %43k ona edo oso ona dela uste duten bitartean. Espainiako egoera politikoari buruzko iritzia datua 2003tik gaur arte jasotako okerrera da, %90ek uste dute txarra edo oso txarra dela.

Lan merkatuarekin lotutako arazoek jarraitzen dute euskal herritarren kezka nagusi izaten (%80k aipatu dute hiru arazo nagusien artean). Oso atzetik datoz arazo ekonomikoak (%21), egoera edo gatazka politikoa (%13) eta laugarren tokian, zerbitzu publikoen funtzionamendua, hedadura eta laguntzekin lotutako arazoak, orain arteko portzentaje altuenarekin, %12.

Ustelkeria eta iruzurra arazo nagusizat aipatzerakoan deigarria da EAEko eta Estatuko herritarren arteko aldea; EAEn herritarren %7k bakarrik aipatu dute, eta Estatuan (CISen datuen arabera) %45ek.

EUSKADI ETORKIZUNAREN AURREAN

Euskal herritarrak optimistak dira Euskadiren etorkizunarekiko. Haatik, krisiaren eragina ez dela bukatu, eta haurrentzat eta gaztediarentzat zailtasunak antzematen dituzte

EAEko herritarren %67 zertxobait edo oso optimistak dira Euskadiren etorkizunarekiko, %28 oso edo zertxobait pesimistak diren bitartean. Alabaina, %61ek uste dute gaur egungo haurren bizitza etorkizunean euren belaunaldikoena baino zailagoa izango dela (EB28ko %49ko batez bestekoaren aurrez aurre), %19k errazagoa izango dela eta %15ek ez dela ez errazagoa, ez zailagoa izango.

Gazteen etorkizuneko aukeren inguruan, gehiengoaren pertzepzioa da gaur egun baino aukera gutxiago izango dituztela etxebizitza lortzeko (%48), lana lortzeko (%42) eta lanbidea aukeratzeko (%41); gaur egungo aukera berdina unibertsitatean ikasteko (%40) eta, berdina edo gehiago bidaiatzeko (%69). Oro har, etorkizuneko aukeren inguruko irudia duela bi hamarkada zegoena baino negatiboagoa da.

Euskadin Europar Batasunean baino apur bat pesimistagoak gara lan merkatuan krisiak duen eraginaren inguruan: ia erdiek uste dute krisiaren okerrera iristear dagoela (%49), Europar Batasunean batez bestekoa %46koa den bitartean.

Euskal gizartearen egungo eta etorkizuneko ezaugarri nagusiak: langilea, demokratikoa eta tolerantia

Biztanleen gehiengoaren iritziz, euskal gizartean oso edo nahikoa ematen dira honako baloreak: langilea (%95), demokratikoa (%78) eta tolerantia (%75). Gizartea, halaber, oso edo nahikoa igualitarioa (%57) eta indibidualista (%53) dela uste dute. Gutxiago dira erlijiosoak (%24) eta gatazkatsua (%19) dela deritzotenak.

Euskal gizartea 2005ean baino demokratikoago eta tolerantiaago atzeman dute herritarrek, eta nabarmenki erlijiotasun gutxiago (%43tik %24ra jaitsi da) eta gatazka gutxiago (%43tik %19ra) duena etorkizun hurbilean. Euskal herritarrek aurreikusten dute euskal gizarteak aipatutako ezaugarriak gehiago edo berdina izango dituela, nahiz eta zatituta dagoen erlijiotasunaren inguruan (%50ek uste dute gehiago edo berdina izango dela eta %48k gutxiago).

**Etorkizuneko erronka nagusiak langabezia eta biztanleriaren zahartzea izango dira**

Euskal gizartearen etorkizun hurbileko zenbait joeren inguruan galdetutakoan, herritarren ustez honakoek goranzko bilakaera izango dute: petrolioaren ordezko energien erabilera (%56 gehitu), emakumeen presentzia ardura postuetan (%52), atzerriko etorkin kopurua (%52), ingurumenaren errespetua eta babesa (%51), adin nagusiko pertsonen zaintzarekin lotutako arazoak (%50) eta euskararen erabilera (%48). Langabeziari buruzko iritziak banatuta daude gehituko dela (%31), berdin jarraituko duela (%34) eta gutxituko dela (%30) uste dutenen artean. Biztanleen ustez eutsiko diote segurtasun ezak eta norbere bizitza eta lana bateragarri egiteko aukerak (%51, bi kasuetan) edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta zerbitzu publikoen kalitateak (%44, bi kasuetan). Aldiz, gehiengoak aurreikusten du erretiro pentsioak (%55) eta familiako seme-alaba kopurua (%53) jaitsiko direla.

Ohitura eta usadioek izango duten bilakaeraren inguruan, iritzi zabalduek da etorkizunean gehituko direla ordainketak egiteko telefono mugikorra erabilteza (%72), janari aurreprestatu eta izoztuen kontsumoa (%63), garraio publikoaren erabilera (%54), supermerkatu handietan erosteko ohitura (%51), kirol praktika (%49) eta elikagai ekologikoen edota bidezko merkataritzako produktuen kontsumoa (%44). Bestalde, gehiengoaren iritzia da berdin jarraituko duela aisialdirako denbora libreak (%45) eta liburu eta prentsaren irakurketak (%43). Azkenik, aurreko harreman pertsonalei eskainitako denbora gutxituko dela uste dute %47k.

Euskadirentzako etorkizuneko erronka nagusiak langabezia (%64k aipatu ditu bi erronka nagusien artean), biztanleen zahartzea (%34), gizarte desberdintasunak (%26) eta hazkunde ekonomikorik eza (%22) lirateke.

Etorkizuneko erronken artean, Euskadin langabezia eta biztanleen zahartzea Europar Batasunean baino gehiago aipatu dira (%64, EBko %53ko batez bestekoaren parean eta, %34, EBko %17ren parean, hurrenez hurren). Aitzitik, Euskadin gizarte desberdintasunak EBN baino gutxiago aipatu dira (%26, EBko %32ren parean). EAEko herritarren iritzia Espainiako herritarren iritziarekiko desberdina da, batez ere, biztanleen zahartzearekiko (Estatuan soilik %16k aipatu dute) eta gizarte desberdintasunekiko (Estatuan %40raino igotzen da aipamena).

GOBERNUEN GESTIOAREN BALORAZIOA**Herritarrek Eusko Jaurlaritzaren gestioa ontzat ematen dute eta balorazioa hobetu da 2010rekiko**

Euskal herritarrek Eusko Jaurlaritzaren gestioa ontzat eman dute (5,5 puntu, 0tik 10erako eskalan), 2010eko balorazio dezente igoz (4,5). Funtzioetan dagoen Espainiako Gobernuaren balorazio orokorra askoz negatiboagoa da (2,4).

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK**Euskal erakundeekiko konfiantza EBko gainerako herrialdeetakoek lortzen dutena baino askoz altuagoa da**

Herritarrek konfiantzarik gehien duten erakundeak honakoak dira, hurrenkera honetan: Eusko Jaurlaritza (%74ko konfiantza), Udalak (%73), Eusko Legebiltzarra (%69), Foru Aldundiak (%64) eta GKE-k (%63). Euren konfiantza maila nabarmen hobetu dute 2014rekiko: Eusko Jaurlaritza (%65etik %74ra), Udalak (%64tik %73ra), Eusko Legebiltzarra (%55etik %69ra), Foru Aldundiek (%53tik %64ra), sindikatuek (%28tik %32ra) eta Justizia Epaitegiek (%26tik %32ra).

Nabarmena da EAEko biztanleek eta Europar Batasuneko batez bestekoak euren berezko erakundeetan duten konfiantza mailen artean dagoen desberdintasuna: euskal udaletan %73k du konfiantza, EBko %42ko batez bestekoaren parean; euren herrialdeko gobernuan (%74 Euskadin eta %27 EBean) eta euren herrialdeko Legebiltzarrean (%69 Euskadin, EBko %28ren parean).

Alderdi politikoen eta buruzagi politikoen balorazioa egonkor mantendu da oraingo legegintzaldiko lau urteetan zehar. Izatez, alderdi politikoei sinpatia eta buruzagi politikoen balorazioek dezimal bakar batzuetako gorabeherak izan dituzte.

Independentziari buruzko jarrerari dagokionez, herritarren %36 kontra eta %23 ados agertu dira, honek esanahi du ados daudenen kopurua orain arteko neurketarik baxuena zen azkenekoarekiko apur bat igo egin dela. Biztanleen %27k diote egoeraren arabera alde edo kontra egongo liratekeela, eta %14k ez dute erantzun.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.310 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2016ko maiatzaren 23 eta ekainaren 2a artean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak